

# noaia

**Amador Granados  
txapeldunarekin solasean**

**"Nola belztu behar zuria"  
saioarekin hasiko da Jexux  
Artzeren omenezko zikloa**

**Garaiko arraina,  
igandeko Tipi-Tapan**

**Ospakizun girorik ez  
Andatza Egunean**





**OGI BERRI**  
ARTISAU OKINAK

**ETA ORAIN...  
IKUSI FUTBOL  
PARTIDUAK  
GUREKIN!**



egunero 06:00tik 21:00ra (asteburutan ere)  
PUNTAPAX KALEA 16 (ARTZABAL)

**Marije**

Arropa denda



*Etxebeste kalea 3, Usurbil - 943361106*



**USURBILGO  
LANBIDE  
ESKOLA**

**Erdi eta goi mailako zikloak  
A eta D Ereduak**

**[www.lhusurbil.com](http://www.lhusurbil.com)**

Administrazio eta  
kudeaketa

Elektrizitate-elektronika

Fabrikazio mekanikoa

Energia eta urri  
Produktzio zerbitzu eta mantenu



**Maiatzak 10 eta 17  
ATE IREKIAK**

**943 36 46 00**



*Udaberria Urtinean*



Zatoz eta jantzi kolorez  
zure etxe, balkoi zein lorategia!

Eta amaren egunean...  
era guztietako aukerak oparitzeko!

Egun oso irekia • San Esteban auzoa, Usurbil  
Tel: 943 36 22 55 • Faxa: 943 36 60 54 • [urtinea@urtinea.com](mailto:urtinea@urtinea.com)

## Albiste iruditan

### “Euskal herritarrak garela ozenki adierazi nahi dugu”

Udalbiltzak eginiko gonbitari erantzunez, Aberrri Egunari begirako mozioa onartu zuen Usurbilgo Udaleko udalbatzak gehiengo osoz, apirilaren 11n deitu zen ezohiko osoko bilkuran. Euskal herritartasunaren aldeko herri dinamika martxan jartzeko deia egiten du, EH Bilduren aldeko bozkekin onartu zen mozioak. EAJ-PNV abstenitu zen. PSE-EE eta Hamaikabat udal taldeetako ordezkariak ez ziren egon osoko bilkuran.

Mozioaren bidez, herritarrei euskal ikurrak jartzeko gonbita luzatzen zaie. Gainerakoan, zenbait konpromiso hartzen ditu Udalak; oroimen historikoa berreskuratzea eta Herritartasun Agiri Ofiziala sustatzea. Bide batez, apirilaren 13an Etxarri Aranatzan ospatu zen independentziaren inguruko herri galdeketa eta ekainaren 8an euskaldunon erabakitze eskubidearen alde Durangotik Iruñeara antolatu den giza-katearekin bat egiten du mozioak.



Oroimen historikoa berreskuratzea eta Herritartasun Agiri Ofiziala sustatzea ere onartu zen Aberrri Egunari begira onartu zen mozioan.

## Laburrean

### Atxilotu bat, taberna batean lapurtzen saiatzeagatik

30 aldiz atxilotu eta 40 alditan baino gehiagotan espetxeratu izan duten 40 urteko gizonezko bat atxilo hartu zuen Ertzaintzak, apirilaren 21ean Usurbilen. Atxilotua, Kaxkoan kokatua dagoen taberna bateko zenbait leihotako beira hautsi eta edaritegira sartzen ahalegindu zen. Jabeak ordea barruan ziren. Gertatzen ari zenaz ohartu eta ustezko lapurraren atzetik segi zioten, begi bistatik galdu arte. Ertzaintzak Kaxkoan atxilotu zuen handik gutxira. Indarrez eginitako lapurreta delitua egotzi diote.

### “Liburutegiak”, mugikorretarako aplikazio berria

Liburutegien katalogoa, albisteak, liburutegien mapa, guneotan antolatzen diren ekimenen inguruko informazioa... eta askoz gehiago eskura izan dezakezue orain, zuen mugikorretan, “Liburutegiak” Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen aplikazio berriari esker. Sare horretan da, Sutegi udal liburutegia. Mugikor edota Android zein IOS sistema baliatzen duten tabletetara jaitsi dezakezue aplikazio berria. IOS (iPhone/iPad) sistemaren kasuan, App Store-tik deskarga dezakezue. Android gailua baduzue, Google Play-tik.

### “El timo del euromillon” delako iruzurra, telefono bidez egina

Telefonoz Usurbil aldean hainbat iruzur egin da azkenaldian. Halaxe jakinarazi digu usurbildar batek. Aurreko astean telefono dei bat jaso zuen gure berriemal honek. Galdera bat ondo erantzunez gero, 1.600 euroko bono bat irabaziko zuela. Saria eskuratzeko, kreditu txartelaren zenbakiak eskatu zizkioten. Eta honek eman. Hotzean pentsatu ondoren, aurrezki kutxara deitu zuen eta ordainketa blokeatu zuen. Baina badi-ra beste hainbat usurbildar berandu jabetu direnak. Antza denez, iruzur bat omen da.

# noaqua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil  
943 360 321 // elkarte@noaqua.com // www.noaqua.com  
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!

#### Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

#### Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Bea Alda,

publizitatea@noaqua.com.

Diseinu berria: Erroitz S. L.

#### Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaqua.com:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,

Aizpea Aizpurua.

Banaketa: Olatz Rezola, Arantxa

Zulaika.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieta, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo,

Jon Etxabe, Alazne Begiristain,

Denis Elortza, Pello Aranburu,

Xabier Aranburu, Inma Balda,

Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre,

Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia

Torregarai eta Udarregei ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza





Imanol Ubeda

## Nork du egokitu beharra hemen

**B**ide Ertzean taldea du gustuko. Duela hiru urte, Andoainen izan zen gu ikusten. Pasa den apirilaren 12an, berriz ere Andoaingo Basteron jotzekoak ginen. Eta horregatik akordatu nintzen berarekin. Honakoan baina, ni aurreratu eta gonbidapenen bat eskainiko niola otuzitzaidan. Apirilaren 10ean, kontzertua baino bi egun lehenago, email bat idatzi nion. "Andoainen jotzekoak gara berriro. Animatzen bazara utziko dizut gonbidapenen bat".

"Pena, Mexikon nago eta igandean lasterketa dut. Baina hurrengo

batean abisatu eta joango naiz. Eskerrik asko nitaz akordatzeagatik". Hori izan zen jaso nuen erantzuna.

Mexikon? Lasterketa batean? Eta gu enteratu ere ez? San Google-era jo nuen berehala, eta hara: Munduko Txapelketa jokoan zen Mexikoko Aguascalientes hirian. Espainiako selekzioarekin partehartzekoa zen apirilaren 13an, taldekako abiadura olinpikoan.

*Berriz eskapatu zaigu albiste*, pentsatu nuen nire artean.

Emailera jo eta informazio pixka bat eskatu nion, eta berehala albiste modukoa prestatu genuen

noaia.com web orrian. Bere lasterketa Youtuben ikusi zitekeen gainera, zuzenean. Horren berri ere eman genuen.

Eta hara, lasterketa eguna iritsi eta pronostiko guztien kontra, munduko txapeldun bilakatu zen, munduko marka onena ezarriz!

Bai, Amador Granadosi buruz ari naiz, irakurle estimatua.

Alberto Contador, Alejandro Valverde edota Samu Sanchez izango balitz, aurkezpenik ere ez nuen egin behar izango. Baina hori du egungo kirol kazetaritzak. Star systemaren zeruan agertzen ez diren kirolariak ez dira existitzen. Emakume kirolari denek asko dakite horretaz.

Zer esanik ez, Amador Granados bezalako txirrindulariek. Txirrindularitza egokitu egiten duela dio UCIk. Baina ez dakit ba, ez ote gara hedabideak eta kirol zaletuak egokitu beharra dugunak.

Mexikotik bueltan, NOAUA!ra etorri zen Amador, dominarekin, ortzadar maillotarekin. Pozarren.

Artean ez zuen ez agintari ezta hedabide bakar baten deirik jaso. Geroztik pasa dira bi aste. Bidegabekeria konpondua egongo da honez gero.

Aritz Gorriti | Luken Arkarazo | Idoia Torregarai | Luis Aranalde | Maialen Unanue | **Imanol Ubeda** | Joxe Piñas | Nerea Zinkunegi

## Helegitea, San Marko Mankomunitateko aurrekontuei

**A**tez ateko bilketa indarrean duten Mankomunitateko udalerriek Euskadiko Auzitegi Goreneko Kontzentsioso-Administratibora jo zuten martxoaren 31n, EAJ-PNV, PSE-EE eta PP alderdiek San Markon onarturiko 2014rako aurrekontuen aurka helegitea aurkeztera; Usurbil, Astigarraga, Pasaia, Hernani eta Lezoko udalek hain zuzen.

Auzitegietara jo izanaren arrazoia, Lezoko alkate Ainhoa Zabalak azaldu zuen helegitea aurkeztu zuten gainerako herrietako alkateekin batera, Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean egindako agerraldian. "Hernani, Usurbil, Lezo, Astigarraga, Oiartzun eta Pasaiko herritarrak, Donostia, Urnieta, Lasarte eta Errenteriko bilketaren parte bat ordaintzera zigortu nahi dituzte PSE-PNV-PP hirukoteak, horretarako mankomunitateko estatutuak urratu behar badituzte ere", zioen.

Kalkuluaren arabera, dagokiena baino gehiago ordaindu beharko lukete atez ateko bilketa sistema indarrean duten sei udalerririk; atez ateko bilketak berak eragindako gastuak, eta gainerako udalerrietan martxan



Helegitea aurkeztu dutenen artean da Usurbilgo Udala.

**"5. edukiontzia zero kostean eskaintzen ari da San Marko, baina haren gastuak udalerririk guztien artean banatu nahi ditu, baita atez ate biltzen ari direnen artean ere"**

duten edukiontzien bilketak eragindako kostuen zati bat hain zuzen.

Zenbakitan, Mankomunitateko aurrekontuek jasotakoaren arabera, milaka euro gehiago ordaindu beharko lituzkete hondakinak atez ate biltzen dituzten San Markoko sei udalerririk, euren lurretatik kanpo, gai-

nerako udalerririk egiten duten hondakinaren bilketagatik:

- Usurbilek 3.000 euro gehiago.
- Astigarragak, 30.000 euro gehiago.
- Lezok, 35.000 euro gehiago.
- Oiartzunek, 60.000 euro gehiago.
- Pasaia, 93.000 euro gehiago.
- Hernanik, 114.000 euro gehiago.

2014ko aurrekontuok San Marko Mankomunitateko estatutuak urratzen dituztela salatzen dute sei udalerrietako alkateek. San Markoko estatutuek diotenaren arabera, "soilik Mankomunitateko gastu orokorren banatuko dira proportzionalki udalerrien artean, beren populazio-

aren arabera". Mankomunitateko hondakinak tratatzeko eskumena du. Bilketarena ez, hondakinak biltzeko eskumena udalena da.

### Legitimaziorik gabeko kudeaketa

Trikimailutzat jotzen duten erabaki honekin, San Marko Mankomunitateko lehendakari Denis Itxasok bosgarren edukiontzia inposatu nahi duela dio alkate talde honek. 5. edukiontzia, "zero kostean" eskaintzen ari dela, "baina haren gastuak udalerririk guztien artean banatu nahi ditu". San Markoko egungo agintaririk, Mankomunitatea osatzen duten udalerririk errealitatearen aurka dihardutela irizten diote. PSEk alkatetik ez baitu 10 udalerrietan, eta horietatik bederatzitan Bildu dago. Mankomunitatea legitimazio demokratikorik gabe kudeatzen ari dela diote, "mankomunitatearen onerako baino, bere interes politikoak aurrera ateratzeko".

Horregatik, udalerririk bakoitzak hartutako erabakiak aintzat hartu eta guztien mesederako politikak sustatzea eskatzen dute, Oiartzun, Lezo, Pasaia, Astigarraga, Hernani eta Usurbilgo alkateek.

# Haurtzaroari loturiko lehen sorospenen ikastaroa



Maiatzaren 12tik 16ra egingo da ikastaroa DYaren egoitzan.

**M**aiatzaren 12tik 16ra izango dira saioak, 10:00etatik 12:00etara DYak Munalurra 26an duen egoitza berrian. Haurtzaroari loturiko istripuen ekiditea eta lehen sorospenen inguruko ikastaroa izango da.

"Haurtzaroan zehar istripuak saihesteko moduari heltzen dio betiere kausa ohikoena eta umeez ordu gehien pasatzen dituzten ingurune arrisksuenak:

etxea, ikastetxea, parkea...kontutan hartuz. Halaber, ikastarora bertaraten direnek istripu horien ondorio diren larrialdi egoerei (erorketak, erredurak, ezta-rriko trabamenduak, intoxikazioak...) aurre egiteko oinarritzko ezaguerak eskuratu ahal izango dituzte. Ezaguera guzti hauek programa baten bitartez modu errazean eta entretenigarrian ikasiko dira, non teoria eskolak trebakuntza-praktikoko eskolekin txandakatuko diren", DYa-tik berri eman dutenez.

## Larunbatean Bilboko manifestakziora joateko autobus zerbitzua Usurbildik

**L**aruntu sistema, eraldaketa gure baitan lelopean manifestakzio nazionala deitu du Ernai gazte erakundeak, larunbat honetarako, maiatzaren 3rako, Bilbon. 17:30etan abiatuko da, Deustuko zubitik. Hara joateko autobus zerbitzua antolatu du Usurbilgo Ernaik. Izen emateko zerrendak, Aitzaga, Irrati eta Txiriboga tabernetan jarri dituzte.

### Ernai: "Bizi eredu askatzailea dugu xede"

"Nazkatuta, ogibiderik ez eta enplegu zerbitzuetako ilara luzeetan itxaron beharraz. Nazkatuta gaude gure ahotsa isilarazi eta gu geu izateko aukera ukatzen

diguten borrhoro guztiez. Nazkatuta hezkuntza eredu arrotzez, genero inposaketek, eskubide ukapenez... Itsu, mutu eta gor nahi gaituzte, baina gazteok ezin diogu ihes egin eguneroko zapalkuntza horri. Lehen pertsona pairatzen ditugu sistema honen ankerkeriak eta horren aurrean ezin beste alde batera begiratu. Hautua egingo dugu, bizi eredu askatzailea dugu xede eta horren alde borrokatzen dugu gogoz. Horregatik, maiatzaren 3an arratsaldeko 17:30etan Deustuko zubian egingo den manifestakzioan hitzordua garrantzitsua dugu sistema hau larrutu eta eraldaketaren alde gaudenok", adierazi dute Ernaitik.

## Animalien zaintza arduratsua sustatzeko formazio saioak

Maiatzaren 8an eta 10ean, Usurbilgo Udalak antolatuta, Igeldoko Txakur eta Katuen Etxea laguntzaile duela:

### Maiatzak 8, osteguna

19:00 Hitzaldia Potxoenean. Gaiak: txakurren zaintza, etologia, gaixotasunak...; kalean kakak uztearen arriskuak; heziketa, txakurren arteko harremanak, arauak; kalean uzteak, biltzeko protokoloak...

### Maiatzak 10, larunbata

11:00 Tailer teoriko-praktikoa, Aranerrekako zelaian: txakurren oinarritzko harremanetako arazoei erantzuteko teknikak eta irtenbideak. Saio honetarako izen ematea aurrez, Usurbilgo Udaleko Zerbitzuen Sailean.

## Ahalduntze ikastaro berriko izen ematea

Emakumeei zuzenduriko "Norberaren zaintza somatikoa eta emozionala" ahalduntze ikastaroa antolatu du Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak. Maiatzaren 9an abiatuko dira saioak. Hortik aurrera, ikastaroko hitzordua, ostiralero, 17:00-19:00 artean Santueneko Aldapeko lokalean. Maider Andonegik zuzenduko du ekimena. Ikastarorako izena aurrez eman behar da, maiatzaren 2a baino lehen; 943 377 110 zenbakira deitu edo parekidetasuna@usurbil.net helbidera idatzi.

## 1964koen kinto bazkaria antolatu dute

Aurten 50 urte betetzen dituzten usurbildarrek ekainaren 14rako finkatu dute kinto bazkaria egiteko hitzordua. Otordurako aurrez eman behar da izena, arratsaldetan, 18:00-22:00 artean, bi telefono zenbaki hauetako batera deituta: 667 055 553 (Julen) edo 655 715 084 (Rosa).

**www.noaua.com**  
USURBILGO ATARIA

**TAXI 24 h**  
**USURBILLEN**  
677 37 34 66 ] Joxe  
943 36 21 78 ] Etxabe

**EROSKI/city**  
kale Nagusia 10, USURBIL  
943 361182

## II. Sagastiak Loretan

### Zer ikusi, zer ikasi eta zer ospatu bada maiatzean

**X**abier Akizuren eskutik, egutegi biodinamikoaz eta ilargian nekazaritzak duen eraginaz jardun ziren joan den larunbatean, Potxoenean burutu zen ikastaroan. Hitzordu honekin abiatu da hain zuzen, II. Sagastiak Loretan ospakizuna, sagarrondoan loraldiaren gorazarre ekimena. Ekainera bitarte, ekitaldi sorta antolatu dute hainbat eragileek elkarlanean.

#### Sariaaundira bisita

Iaz bezala, Sagastiak Loretan zikloko ekitaldietako bat Aginagako Sariaaundi baserrian ospatuko da aurten ere. Maiatzaren 10ean, 17:30etan, bisita gidatua, eta aurten, musika eta dantza uztartuko dituen emanaldia, Eneko Balerdi dantzariarekin. Hau egitaraua, oso-osorik.

#### MAIATZAK 3, LARUNBATA

10:15 Sagasti loretuetan barrena ibilaldia Jakoba Errekondo paisajistarekin, Alkartasuna, Usurbilgo Baserriarren Kooperatibatik abiatuta.

#### MAIATZAK 9, OSTIRALA

19:00 Sagar muztio dastaketa eta sagardoa dastatzen ikastea, Usurbilgo Gaztetxean. Guillermo Castaños enologoaren laguntzarekin.

#### MAIATZAK 10, LARUNBATA

17:30 Berreskuratutako XVI. mendeko Aginagako Sariaaundi Dolare-baserria ezagutzeko bisita gidatua. Tartean, XVI.



Larunbat honetan, sagasti loretuetan barrena ibilaldia egiteko aukera dago.

Iazko azaroko ibilaldian bezala, Jakoba Errekondo izango da gidaria.

mendetik gaur arteko musika kontzertua eta dantza garaikide saioa, Eneko Balerdi dantzariarekin. Kopuru mugatua. Zure bertaratzea baieztatu: 943 360 321 edo elkartea@noaua.com

#### MAIATZAK 15, OSTEGUNA

San Isidro Eguna  
10:30 Meza Nagusia Salbatore Elizan.

Ondoren, hamaiketako eta herri kirolak frontoian.

14:00 Bertso-bazkaria Artzabalen (txartelak salgai 25 eurotan Artzabal eta Alkartasuna Kooperatiban, maiatzaren 12ra arte).

18:30 Kalejira Usurbilgo erraldoi konpart sarekin.

#### MAIATZAK 17, LARUNBATA

Iluntzean, sagardo dastaketa gidatua eta afora Saizar sagardotegian, Fernando Vadillo

enologoaren eskutik. Informazio gehiago NOAUA! Kultur Elkartean (943 360 321) edo Saizarren (943 373 995).

#### MAIATZAK 18, IGANDEA

XXXIII. Sagardo Eguna  
"Usurbilgo baserrietako dolaren argazkiak" erakusketa, Sute-giko aretoan.

11:30 Hasiera ekitaldia.

Baserriko, Labeldun eta Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteko sagardoa dastatzeko aukera. Honetaz gain, pintxo aukera zabala.

17:00 Erromeria, "Ingo al deu" taldearekin frontoian.

Arratsaldean, "Elektro Patxaranga" kaleetan zehar.

#### MAIATZAK 24, LARUNBATA

10:30 Sagastitik Botilara Sagardoa, bisita didaktikoa Aginagako Urdaira sagardotegian.

Sagardo dastatze hamaiketako gidatua, Xabier Kamio enologoak gidatua eta Maialen Lujanbio eta Aitor Mendiluze bertso-lariek gidatua. Izen-ematea: Urdairan (943 372 691) eta NOAUA! Kultur Elkartean (943 360 321). 5 euro, plaza mugatuak.

#### EKAINAK 1, IGANDEA

9:00 Sagastien udako inausketa ikastaro teorikoa eta praktikoa Potxoenean, Aitor Etxeandia Nekazaritza Ingeniariaren eskutik. Informazioa: 943 361 114 / alkartasuna@usurbil.com

**Elkarlanean:** Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak, Alkartasuna Usurbilgo Baserriarren Kooperatiba, NOAUA! Kultur Elkartea, Usurbilgo Sagastia E.M., Usurbilgo Gaztetxea, Sagardoaren Unibertsitatea, Saizar eta Urdaira Sagardotegiak, Gipuzkoako Sagardogileen Elkartea, Bizi Sagardoa, Usurbilgo Udala.

#### Sagardo Egunerako botatzaileak behar dira

Usurbildarren urteko festa egun nagusian, sagardoa zerbitzatzen lagundu nahi dutenentzako deialdia egin dute antolatzaileek. Sagardo botatzaileak behar dituzte, maiatzaren 18an ospatuko den jaialdirako. Animatzen direnak, egoki jantzita, agertu daitezela, Sagardo Egunean, goizeko 8:00etan frontoira.

**ETXETRESNEN KONPONKETAK**  
Moduz, azkar eta prezio onean  
MARKA GUZTIAK



645417665  
XABIER  
Usurbil

**Otar-Goxo**  
Elkargaiak

Zubiaurrenea, nº2  
☎ 943 36 55 81  
20170 Usurbil

**WHEEL MADAMA**

Talde murriztuak eta pertsonalizatuak

- Lehen eta Bigarren hezkuntza
- Batxilergoa - Selektibitatea
- Lanbide heziketa
- Ikasketak teknikoak - Hizkuntzak

629944690  
Galtzaragaña 1, behea USURBIL

**ANTXETA**  
taberna-jatetxea

eguneko menuak  
ogitartekoak  
plater konbinatuak



Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44





# berria

berritzen ari gara guztion ekarpenarekin...

...eta zure laguntza saritu nahi dugu.

## Parte hartu zozketan

Sariak:



## Parte hartzeko, bidali:

- Zozketa + izen-abizenak

Telegram, Whatsapp edo SMS bidez

**(0034) 687-48 97 84**

- Eman izena webgunean: [www.berria.info/zozketa](http://www.berria.info/zozketa)

Babesleak



Datu Pertsonalak Babesleko Alderdiak: Eroski, 1997 Lege Organikoa defektu, jakinarazi ahal duen zure datu pertsonalak Eroski, Eroski, zure datuak tratamenduak. Izakia osatzen duen enpresa guztiak ez diren, babesa on egularitza Dapi Enpresa; 0343 paberez bai bidaiak elektronikak erabiltzeko eta bere kontakurako daturak argitaratzeko zozketaren antolaketan zurekin. Zozketaren gero, idatzi beharreko hontara: "Eroskiaren Komunikazio" Irdetu, Martin Ugaltze Kultur Parkean, 20140, Andoain.



# Andatza Egunean, ospakizunik ez

Ospakizunik gabeko ezohiko Andatza Eguna izango dugu aurtengoa. Mendia zer egoeratan dagoen ikusita, maiatzaren 4ko ekitaldietan ez laguntzea erabaki du Andatza Mendizaleen Kirol Taldeak. Laguntzeari uko eginda, herritar eta erakundeak Andatzaren egoeraz jabetu eta usurbildarrentzat kuttuna den gunearen etorkizunari buruzko eztabaida piztu nahi dute. Eta beste ezer baino lehen, mendia txukuntzea eta egoeki zaintzea eskatzen dute. Mendizaleen bilguneak hartutako erabakiaz zehaztasun gehiago, lerrootan.

## NOAUA! Zergatik erabaki duzue planto egitea?

**Andatza M.K.T.** Andatza dagoen moduan baitago, bazter guztiak pinu hondarrez josiak, pinua botatako lekuetan bidetik ateratzerik ez dago eta bidezidorrak ere hondatuta daude. Horregatik, erakunde eta herritarrek egoeraz jabetu eta Andatzaren etorkizunaren inguruko eztabaida sortzeko, planto egitea erabaki dugu. Andatza Egunean ez parte hartzea, ez laguntzea erabaki dugu. Iaztik dator kontua. Iaz ere pinuak botatzen ari ziren. Andatza Egunaren aurreko hilabeteetan, bideak txiki txiki eginda zeuden. Eztabaida hau izan genuen. Aldundiak gestio azkar batzuk egin ondoren, Ziortzatic gora doan pista txukundu zuten. Baina mendi inguru guztiak lokatzez josiak eta oso gaizki zeuden. Jende asko urtean behin igotzen da bakarrik. Batzuen zatitza ezustekoa izan zen, Andatza egoera hartan ikustea. Kontua da, iaztik hona ez dela egoera hobetu.

## Taldearentzat erabaki zaila izango zen?

Gu gara pena handiena dugunak. Andatza Egunean laguntzen parte hartu ohi dugu eta egun hori asko gustatzen zaigu. Guretzat ere ez da erraza izan, baina gaia mahai gainean jartzeko une egokia dela iruditu zaigu. Jende asko harrutuko da hartu dugun erabakiarekin.

## Zer egoeratan dago mendia? Iaztik hona okerrera egin du?

Berdintsu segitzen du. Azken bi urteotan, sail handia bota dute eta laurdena ere ez dute aldatu, eta gainerakoa zaborrez betea geratu da. Oso itxura geratzen da, eta ez da erakargarria geratzen mendira joateko. Aparte, hor uzten dituzten hondarrak suteetarako arriskua dute. Mendiaren jabea Foru Aldundia da. Aldundia da Andatzako kudeatzailea.

## Egoera honen aurrean, zer da eskatzen duzue-na?

Lehenik eta behin, informazioa. Usurbilgo herri-



“Andatzako bazterrak pinu hondarrez josiak daude”, Mendi Elkartekoek adierazi digutenez.

## ANDATZA MENDI ELKARTEA

**“Gerora ere pausoak eman beharko genituzke, udal, eragile, eta herritarrekin...  
Ia egunen batean Usurbilek lortzen duen mendiaren jabetza eta kudeaketa”**

tarrok ez dugu inolako informaziorik Andatzaren kudeaketari buruz. Usurbildarrok Andatza gure mendi bezala sentitzen dugu. Lehengo eta egungo kudeatzaileek, Estatuak eta Aldundiak hurrenez hurren, ez gaituzte kontuan hartu. Baliabide asko dago Andatzan, mendizale, perretxiku zale edo abeltzaintzat. Biomasa garrantzitsu bat da. Hori guztia kontuan izatekoa da.

## Zer egin daiteke egoera honi buelta emateko?

Mendia txukundu eta hobeto mantentzea. Bestalde, garrantzitsua iruditzen zaigu herrian, Andatzaren geroari buruzko eztabaida sortzea. Gerora ere pausoak eman beharko genituzke, udal, eragile, eta herritarrekin, mendiaz gozatzen duen gutzia kontuan izanda. Ia egunen batean Usurbilek lortzen duen mendiaren jabetza eta kudeaketa. Udalarari Andatza Egunean ez dugula lagunduko jakinarazi diogu. Ahalik eta lasterren bilera bat egin tea adostu dugu. Udaletik jarrera ona izan dute, aurrerapauso bat da.

## Andatza Egunean ez parte hartzea, aurtengorako hartu duzuen erabaki puntuala da?

Erabaki hau aurtengorako da. Pausoak ematen hasi gara. Udalarekin bildu gara. Aldundiarekin hartuemanetan jarri eta Aldundiko alor honetako ordezkari bat Potxoenera etortzea proposatu diegu. Esplika dezatela herri guztiari zer asmo duten. Hortik aurrera ikusi beharko da zer erabaki hartu edo zer egin daitekeen. Mendia garbitu egin behar dute. Arbak botatako bazter guztietan, arbak daude ikaragarri pila daude eta horiek garbitu behar dituzte.

## “Pena handiz hartu dugu erabakia”

Usurbilgo Udal Gobernu taldeak, Andatza Mendizaleen Kirol Taldeak hartutako erabakia baloratu du lerrootan.

## NOAUA! Nola jaso duzue albistea?

**Udal Gobernuak:** Tamalgarria iruditzen zaigu Andatza Egunaren ospakizuna bertan behera utzi behar izana. Andatza Mendi Elkartek hartutako erabakia inondik inora ez dugu ulertzen. Gure ustez, elkarteak azaldu dituen argudioak ez dute justifikatzen urtero ospatu den jaia aurten bertan behera uztea. Beraz, ez gatoz bat erabaki horrekin, ez dugu konpartitzen erabilitako argudioak, eta are gutxiago gaia planteatzeko eta erabakiaren komunikazioa Udalarari emateko modua, Andatza Eguna ospatzeko egun gutxi falta zirenean.





# 2. SAGASTIAK LORETAN OSPAKIZUNA '14

SAGARRONDOEN LORALDIAREN  
GORAZARRE EKIMENA USURBILEN

## MAIATZAK 3 Larunbata • 10.15

Sagasti loreuetan barrena ibilaldia, Jakoba Errekondo paisajistarekin. Alkartasuna, Usurbilgo Baserritarren Kooperatibatik abiatuta.

## MAIATZAK 15 Osteguna

SAN ISIDRO EGUNA

**10:30:** Meza Nagusia Salbatore Elizan, Ondoren, Hamaketakoa eta Herri Kirolak frontoian.

**14:00:** Bertso-bazkaria Artzabalen. (Txartelak salgai 25€tan Artzabal eta Alkartasuna Kooperatibaren maiatzak 12 arte).

**18:30:** Kalejira herriko erraldoi konpartsarekin.

## MAIATZAK 24 Larunbata • 10.30

Sagastitik Botilara Sagardoa. Urdaira Sagardotegian, Aginagan, bisita didaktikoa. Sagardo dastatze hamaketako gidatua Xabier Kamio enologoak gidatua eta Maialen Lujanbio eta Aitor Mendiluze bertso-lariek girotua. *Izen-ematea: Urdairan (943 37 26 91) eta Noaua Kultur Ekartean. 5€, eserleku mugatuak.*

## MAIATZAK 9 Ostirala • 19.00

Sagar muztio dastaketa eta sagardoa dastatzen ikastea. Usurbilgo Gaztetxean, Guillermo Castaños enologoaren laguntzarekin.

## MAIATZAK 17 Larunbata • 20.00

Sagardo dastaketa gidatua. Afarria Saizar Sagardotegian, Kalezaren, Fernando Vadillo enologoaren eskutik. *Afarria eta dastaketa 25€. Izen-ematea: Saizar Sagardotegian (943 36 45 97).*

## EKAINAK 1 Igandea • 9.00

Sagastien udako inausketa ikastaroa, teorikoa eta praktikoa. Aitor Etxeandia Nekazaritza Ingeniariaren eskutik, Potxoenean. *Informazioa Alkartasuna Kooperatibaren: 943 36 11 14 edo alkartasuna@usurbil.com*

## MAIATZAK 10 Larunbata • 17.30

Berreskuratutako XVI. mendeko Sariaundi Dolare-baserria ezagutzeko bisita gidatua. Tartean, XVI. mendetik gaur arteko musika kontzertua eta dantza garaikide saioa, Eneko Balerdi dantzariarekin. AGINAGAKO SARIAAUNDI BASERRIAN. *Kopuru mugatua. Zure bertaratzeari baiezta 943 36 03 21 telefonoan edo elkarte@noaua.com*

## MAIATZAK 18 Igandea • Egun osoz

XXXIII. SAGARDO EGUNA

Usurbilgo plazan. Sutegin "Usurbilgo baserrietako dolareen argazkiak" erakusketa.

**ELKARLANEAN:** Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak, Alkartasuna Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba, Noaua Kultur Elkarte, Usurbilgo Sagastia E.M., Usurbilgo Gaztetxea, Sagardoaren Unibertsitatea, Saizar eta Urdaira Sagardotegiak, Gipuzkoako Sagardogileen Elkarte, Bizi Sagardoa, Usurbilgo Udala.



# Trabak traba, munduko txapelketa

**G**ipuzkoan bi baino ez dira munduko txapelkun izan: Abraham Olano eta ni. Atera kontuak zer nolako garrantzia duen. Hitz horiekin azaldu digu Amador Granados. Baina zoritxarrez, txirrindularitza egokituak ez du txirrindularitza profesionalak duen itzala. Apirilaren 13an lortu zuen balentria, Mexikoko Aguascalientes hiriko belodromoan. Taldekako abiadura olinpikoan lehenak izateaz gain, munduko marka onena ezarri zuten Amador Granados eta bere taldekideek.

**NOAUA! Zalantza handiekin abiatu zinen Mexikora. Baina emaitza ezinhobea izan da. Zein izan da balentria honen gakoa?**

**Amador Granados.** Berezia izan da Munduko Txapelketa hau. Gainera urte zaila izan da niretzat, abenduaren 24tik urtarrilaren amaiera bitarte ez nion gripearri buelta eman, eta horrek asko mugatu ninduen. Gero, kirolaren inguruan izan ohi den tentsioa tarteko, ez nintzen behar bezala aritu Espainiako Txapelketan.

Hilabete lehenago, abiadura olinpikoko taldeak ez zuen munduko txapelketan parte hartu behar, nirekin ez behintzat, baina elkarrizketa askoren ondoren, eta presioa egin ondoren, frogatuta egitea lortu nuen eta hor ikusi zen dominatarako taldea zegoela, eta lehiakorrak ginela.

Beste lasterketarik egin behar ez nuenez, taldekako proba hau prestatzeari ekin nion burubelarri. Hirutan elkartu ginen Eduardo Santa eta bere entrenatzailea, eta ni eta nire entrenatzaile Emaitz. Garapen onenak erabaki eta irteera ordena zehazteko nagusiki.

Behin Mexikon, ez genuen



Eskuetan eta besoetan zuen gaixotasuna hobetzeko hasi zen txirrindularitzan. Abiadura olinpikoan onenetakoa da. Baina 46 urterekin, ia erretiroa hartzean den honetan erdietsi du bere markarik onena.

## AMADOR GRANADOS

**“Nik uste dut batez ere partehartzaileen kalitateari esker izan dela, eta ez hainbeste prestaketa edota taldekako koordinazioari”**

gauza handirik egiteko modurik izan, nik lehiaketa simulazioak egin nituen. Hirurak elkarrekin oso serie gutxi egin genituen. Beste selekzio batzuk hainbat test egiteko aukera izan zuten baina guk ez.

**Eta halere, denbora ezin hobean osatu zenuten.**

Emaitz izugarria da, munduko txapelkunak eta hori baino garrantzitsuago, munduko errekorra ezarri dugu. Nik uste dut batez ere partehartzaileen kalitateari esker izan dela, eta ez hainbeste prestaketa edota taldekako koordinazioari.

Horrelako proba batek en-

trenamendu asko eskatzen du, txirrindulari bakoitzak nola erantzuten duen ikusi... Baina gure kasuan alde batera utzi dute, eta txirrindulariok maila indibidualean prestatu behar izan dugu. Eta hala ere marka da lortu duguna.

## ORAIN ARTEKO EMAITZARIK ONENA

**Zure emaitzarik onena izango da hau, ezta?**

Noski baietz. Bigarren geratu nintzen munduko beste txapelketa batean, baina hau izan da lortu dudana emaitzarik onena: munduko txapelkun, errekorra ezarri.

Kirolariak gogor lan egiten du eta irabazteko borrokatzen du, eta zentzu horretan titulu hau kirolari batek lor dezakeen handiena da. Eta esan izan didaten bezala, Gipuzkoan bi baino ez dira txirrindularitza munduko txapelkun izan: Abraham Olano eta ni. Atera kontuak zer nolako garrantzia duen.

## “Espainiako Federazioa konbentzitu behar izan genuen”

**NOAUA! Trabak ere izan dituzue bidean.**

**Amador Granados.** Emaitz Iza-girre eta Ainhoa Artolazabal nire entrenatzaileek eta nik proba honekiko sinesmen handia genuen. Selektzio honek bazuen indar handia baina ez zitzaion orain arte merezi zuen arreta eskaini.

Selektzioa osatzeko, kategoria bakoitzetik puntu jakin batzuk osatu behar ditu, eta soilik egoera horretan har daiteke parte. Kasu honetan, Eduardo Santas, Alfonso Cabello eta nirekin baldintza horiek betetzen ziren. Guk hori aurrekusten genuen eta arlo ezberdinetan aritu gara lanean emaitza hau erdietsi arte.

Federazioa konbentzitu behar izan genuen eta euren hasierako intentzioa aldatzea lortu genuen. Horri esker lortu dugu errekorra eta domina taldekako abiadura olinpikoan.



# txapeldun berria

**NOAUA! Hautatua izateko arazoak izan dituzu. Nola ikusten duzu zure etorkizuna epe laburrean?**

**Amador Granados.** Krisi garaia bizi dugu eta gizartearen alor guztiei eragiten dio. Entrenatzaileak, kirol merituekin zerikusirik ez zuen erabaki baten ondorioz, modu bidegabean utzi ninduen Londreseko Olinpiar Jokorik gabe. Eta horren ondorioz, Espainiako hautatzaileak baztertu egin ninduen. Bulego lanak egin behar izan dira egoerari buelta emateko.

Horretaz aparte, selekzioan sartzea gero eta garestiago dago, bitartekoak gero eta urriagoak dira eta kirolari asko gaudela plaza kopuru txikirako.

**Epe laburrean, zeintzuk dira zure helburuak?**

Zaila da esatea zer egingo du dan. Hautatzaileak talde honen aldeko apostua egingo bala, denbora pixka batez jarrai dezaket, nire espezialitatea delako; baina edozein dela arrazoa abiadura olinpikoa baztertuko balitz, konpetizioa utzi beharko nuke, gauzak nola dauden ikusita ez legoke eta niretzat tokirik.

Ez ditut helburuak ezartzen, zeren ez daude soilik nire esku. Nirea egunez eguneko da. Epe laburrean, Felix Garcia Casas entrenatzailearekin hitz egin beharko dut eta hor ikusiko da zein den nire etorkizuna.



Amador Granados, Eduardo Santos eta Alfonso Cabello txirrindulari txapeldunak, urrezko dominak jaso berri. Bigarren Txinako selekzioa izan zen eta Britainia Handikoa, hirugarren.

## “Nire familiari eskaini nahi diot saria”

**NOAUA! Nori eskaini nahi diozu garaipen hau?**

**Amador Granados.** Ezagutzen nauten guztiei eskaini nahi diet garaipen hau. Askoz gehiago gozaten baita konpartitua den garaipen batekin. Baina bereziki nire familiari eskaini nahi diot saria, utzi berri gaituen aitari, ez zuelako ni irabazten ikusteko aukerarik izan, nire ama Puriri bere umea izaten jarraitzen dudalako oraindik, Ana eta Garbiñe arreba, Gonzalo eta Josean koinatak, Ainara, Oier eta June ilobak, Fabiola nire bikotea eta gainontzena.



Txirrindulariak, Felix Garcia Casas entrenatzailearekin.

ko familiako kideak, eta egunez egun nire ondoan diren Emaitz eta Ainhoa entrenatzaileak, Maria medikua, Federazioko Luis nire mekanikoa, Jon, Xabi, Andoni, Nahia eta nirekin

entrenatzen dutenak, Lolo, Goyo eta Guillermo lagunak, Zuzenak CD taldea, Oreki-Gipuzkoa, Michelin babeslea... Eta orohar, ezagutzen nauten eta lagundu nauten guztiak.

**LATAILLADE**  **ITURGINTZA**

Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua

Aristitxo 8, behea 943 363 348 - 609 888 021

**txirriStra**  
TABERNA



- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66




# “Nola belztu behar zuria”

LARUNBATEAN SUTEGIN, JOXAN ARTZEREN LIBURU BERRIETAN OINARRITUTAKO EMANALDIA

Joxan Artzek “Heriotzaren ataria dugu bizitza” eta “Bizitzaren atea dukegu heriotza” izeneko poesia liburuak kaleratu ditu Elkar argitaletxearen eskutik. Bertako poemak oinarri hartuta poesia eta musika emanaldia sortu dute Bide Ertzean taldeak eta Metrokoadroka kolektiboko Oier Guillan eta Asier Sarasola deklamatazaileek: zazpi poema kanta bihurtu eta beste hogeitau inguru errezitatu dituzte. Larunbat honetan eskainiko dute lehen aldiz, gaueko 22:00etatik aurrera Sutegin. Ekitaldi honekin hasiko da Jexux Artzeren omenezko kultur zikloa.

Joxan Artzeren liburu berriek jorratzen dituzten gaietan barrena osatu dute ibilbidea egileek: maitasuna, bizitza-heriotza, ama-aita, itsu-mutugorkeria, olerkaria zuria belzteko tenorean...

Eta Artzeren idazkerak dituen ardatzak hartu dituzte aintzat horretarako: musikaltasuna, erritmoa, irudi kate-



Joxan Artzek Kritika Saria jaso berri du bere azken bi liburuengatik.

tuak, hitz jokoak, sakontasun lirikoa.

“Nola belztu behar zuria”, funtsean, Joxan Artzeren poesiaren mundu zabala ahots eta doinuaz jantzi nahi duen emanaldia da.

## “Nola belztu behar zuria”

**Maiatzak 3 larunbata**

- 22:00etan, Sutegin
- Sarrera: 10 euro Sutegin, alde aurretik 8 eurotan Lizardin.
- Antolatzailea: Jexux Artze KE.
- Partehartzaileak: Bide Ertzean, Oier Guillan, Asier Sarasola.

## Joxan Artze, Espainiako Kritikaren Sariaren irabazle

AECL Espainiako Literatur Kritikarien Elkarteko kideek osatzen dute sariketa honetako epaimahaia, eta iaz argitaratutako liburuen artean egin dute aukeraketa.

Euskarazko narratibaren alorrean, Atxagaren 'Nevadako egunak' (Pamiela) hautatu dute, eta euskarazko poesiarenean, Artzeren 'Heriotzaren ataria dugu bizitza' eta 'Bizitzaren atea dukegu heriotza' (Elkar) bildumak.

## “Hiru” komedia, barrea eragiteko makina

Juan Carlos Rubio gidoigile eta antzerkigile espainiarraren Tres komedian oinarrituta dago Txalok datorren astean Sutegira dakarren antzezlana, eta, Begoña Bilbaoren hitzetan, “zentzugabekeria bat” da, “barre eginarazteko makina bat”. “Ikusleak izan dezake pertsonaiekin identifikatzeko aukera, baina oso komedia zoroa da. Helburu nagusia dibertitzea da, ondo pasatzea”, esan zuten Txalokoek komedia honen aurkezpenean.

## “Hiru” antzezlana Maiatzak 10 larunbata

- 22:00etan, Sutegin
- Sarrera: 10 euro Sutegin, alde aurretik 8 eurotan Lizardin.
- Antolatzailea: Jexux Artze K. E.



Loli Astoreka, Miren Gojenola, Ana Elordi eta Zuhaitz Gurrutxaga dira obrako aktoreak.

## NOAUA!ko bazkideen artean, zozketa berezia

NOAUA! Kultur Elkarteko bazkideen artean, bina sarrera zozketatuko ditugu. Zer egin behar da? Email bat idatzi erredakzioa@noaua.com helbidera. Eta interesa agertzen duten bazkide guztien artean zozketa egingo dugu.

“Nola belztu behar zuria” saiorako zozketa maiatzaren 2an egingo dugu, eta “Asier ETA biok” eta “Hiru” antzerkirako zozketa, maiatzaren 9an.

Bi kasuetan, noaua.com web orriaren emango ditugu sarituen izenak ezagutzera. Eta irabazleek, Sutegiko takillan, ekitaldi egunean jaso ahal izango dituzte.

## “Asier ETA biok” filma, laguntasunetik haratago

Asier eta biok batera hazi ginen Euskal Herriko kaleetan. Ondoren, ni Madrileran joan nintzen bizitzera. 2002an ETAn sartu zen Asier. Nola ulertarazi Madrilgo nire lagunei zerk eraman zuen niri ere ulertzeko zail egiten zaidan erabaki hori hartzera?. Aitor Merino aktoreak bere buruari egin zion galdera honetatik abiatu zen *Asier ETA biok* dokumentala osatzeko asmoa.

“Asier kartzelatik irtetean, kamera bat hartu eta pelikula

bat egitea erabaki nuen, galdera horri erantzuna bilatzen saiatzeko eta, zergatik ez, jarraituz hurbiltzeko. Hala ere, nire plana ez zen uste bezain erraza izan”, filmaren sinopsian Aitor Merinok berak aitortua.

Dokumental kutsuko pelikula honen estreinaldian, hain juxtu, berriz ere atxilotua izan zen Asier Aranguren. Oihartzun handia izan du gerotzik pelikulak. Usurbilen, datorren astean ikus ahal izango dugu.



Asier Aranguren eta Aitor Merino, dokumentaleko protagonistak.

## “Asier ETA biok”

**Maiatzak 9 ostirala**

- 22:00etan, Sutegin
- Sarrera: 10 euro Sutegin, alde aurretik 8 eurotan Lizardin.
- Antolatzailea: Jexux Artze K. E.



# Burujabetzaren alde mobilizatuko da LAB, maiatzaren Lehenean

**B**uruntzaldea mailako manifestazioa deitu dute Hernanin. Maiatzaren 1ean, eguerdiko 12:00etan abiatuko da, Gudarien Plazatik, "Langileok erabaki, Euskal Herriak erabaki dezan!" lemapean. Ondoren, ekitaldia egingo da Ezkiaga pasealekuan (Tilosetan).

Bizi dugun egoera gaintzeko irtenbide propio bat proposatzen du LAB sindikatuak; burujabetza politiko, ekonomiko eta soziala. "Guri dagokigu erabakitzea nola sortu, banatu eta antolatu nahi dugun aberastasuna Euskal Herrian. Hor dago irtenbidea", dio sindikatuak Buruntzaldean duen ordezkariak. Burujabetza prozesuko giltza da erabakitze eskubidea LAB-entzat, eta "langilearen protagonismoa eta parte hartzea prozesuaren berma". Mezuon bueltan antolatu dituzte



Buruntzaldeko LAB sindikatuak manifestaziorako deia egin du. Eguerdiko 12:00etan Hernanin.

maiatzaren 1erako mobilizazioak.

